

BIZITZAN BI GOI-ASMO **Euskeraz argitaratu den** **“ELEBERRI” ederrenetako bat**

Txomin Jakakortejarena Txomin

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 2 (1992), p. 479-486
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Et dut itzerdi bat ere kendu nahi nere ustez aspaldi euskeraz argitaratu den libururik mar-
dul eta onuragarriena dela esanez.

Orregatik goi aipamena azaltzea zor zaio; eta zorionik beroena ain lan bikaina bururatu
duen D. Txomin berastegi-apaiz eta idazle ospetsuari. Gehiago oraindik Argentina'n berrogei
urtetik gora biziturik jaioterriko izkuntza eta erlijio ardura aztu gabe, eguneroko lan eta nekea
bazterteke (ez noa aipatzera erlezaintza) euskaldun izena goi mailara igo arazi duelako.

"BIZITZAN BI GOI-ASMO" da lekuko. Erbeste izkuntzetan oberik arkitzea ez da errez.
Irakurle-zale purrukatua izan nazu beti; mintzaira ezberdiñetan eta poz-pozik aitorzen dizuet
atseginenetakoa izan zaidala. Au aitortzeko darabilkidan nere euskera motel eta kale-kutsuz
betea arkitzen baldin ba dezute onoko onen ezjakiña da errudun. Barka bezaidazute arren!
Irakur errezena jo dut euskaldun gehienak uler dezaten

Jakakortejaren jatorria

Euskotar utsa izan ezik giputz-napar (Berastegi-Leiza) nasketatik sortua dela aitor deza-
ket. Txomin mutikoak Berastegi herrian izan zuela sor-leku. Gurasoek Argentina'n irabazitako
diruz Berastegi'n "indiano" gisa ezkondu ta bi seme azi zituzten. Auetako bat dugu gure Txo-
min; gero apaiz zintzo eta idazle jakintsu biurtuko zena. Bertako eskolan, erdal maisuaren mende
ezer gutxi ikasi zuen; osta-osta erdera baldar eta zerbait antzeko.

Gurasoek jabetu ziran bide ortatik aurrerapen eta irabazi urria arki hal izango zutela mun-
du zehar.

Urteen buruan apaiz zintzo eta idazle jakintsu biurtuko zena. Gehiago oraindik. Mutikoek
adimenez argi eta erneak zirala ikusirik elizako ikastetxetan ikasbide ohea arkituko zutela kris-
tau sinismenean eta abar apaiz bidea har zezatela erabaki zuten semeen baimenez gainera.
Horretarako Andoain'en ikastetxe berezia eraikita zegoela-ta gara eraman zituzten. Hain zu-
zen "SOSTOA" berastegi-berastegi zegoen zuzendari. Zoritxarrez Andoain'go apaiz-gai etxea era
bat erre zen. Anai gaztea ez zuen gehiago jarraitu. Txomin'ek berriz Saturraran'go ordezeko
etxera aldatu zen eta nolako maillara iritxi zen ikustera goaz.

Irakurriko dituzuten guztiak gertakizunak besterik ez dira, ez asmatu ta sumatuak "BIZI-
TZAN BI GOIASMO" agertzen diran guztiak bezelakoak; Egi utsak eta ez gezurrak. Erantsi
beharririk ez dago euskera garbi errez eta aberatsean azalduak. Ondotxo ikasi zuen Txomin
berastegi-berastegi jaioterriko zer nola guztiak; izkera, zuaiz, landare, pizti ta inguruko izenak. Es-
kutirik gabe. Barkatuko ahal diozute masiazalle honi beste orrenbeste egiteko din ez izatea.
Nere ezjakin kutsua nabaritzea ez zaizute zail izango. Uler erreza izatea bezait iazeki. Txomin
gaztea Jainkoganako deia ta eleiztar zaletasunez benetan ornitua zegoen. Horrela azaltzen
zaigu apaizgoan eta beste lan guztietan agertu digunez.

Andoain'go apaizgai etxea erre zelarik Bizkai'ko mugan berdin. Eta beste apaizgai lagunekin beti atsegin. Sei urtetik gorako ikaskizunek amaitu ondoren apaiz eta eleizgizon jakintsu arkitu zuen bere burua Meza santua eta apaiz doai osoen jabe. Batere duda-mudarik gabe meza berria emateko garaia eldu zitzaion. Berasteguiko herria haren esku bedeinkatuarik mun egitera pozik bildu zela ez dago esan beharrik. Orduan Gazteizen gotzai zegoen D. Mateo Mujika txit agurgarriak, lenengo eman zion ardura "Nafarrate" herrixkako artzai izatea egokitu zion. Sei etxe eta han bizi ziran nekazari jatorren erretoretza eman zion. "Nafarrete" Gazteiz'tik urbil dagon bizi-lagunen zaintza izan zen Txomin Jakakortaxarena apaiz gazteak izan zuen apaiz lana.

"NAFARRATE" herri kristau fededuna baiñan aspaldi euskera galdu zuena. Han asiera eman zion apaiz gazteak "BIZITZAN BI GOI ASMO" elburuztat harturik zeukan lan nekagarria.

* * *

Gure apaiz gaztea beti ameslari eta era berean eraginkor kristau sinismena eta euskal berpiztea zituen gogoan.

Aua aitatutakoaz ez dugu ahantzi behar urte haietan euskal abertzaletasuna zabaltzen zi-joala. Txomin beste apaiz gazte lagun gehientsuenekin "Jainkoa eta Legezarra" alderdira makurturik zeudela. Ez da arritzekoa "Bizitzan bi goi asmo" liburua bi elburu hoetaz josirik egotea. Irakurlea ikusten joango danez, bi asmo goitar hohiek bete bait zioten bizi guztia. Bai sorterrian eta gero Amerikan igarotako ea 50 urte luzeetan...

Luze laburrean Jainko eta aberzaletasun bidean joatea izan zen gizon eta apaiz bezala Txominen goi asmoa, berresaten ari natzaizu tenez.

Eragozpen izugarri odoltsua

Onela deitu behar Españi osoa 1931 urtearen ezkeroko sortu zen politika gudatea lehenengo eta odol burrukari. Errepublikar matxinadaz zale eta militar talde nagusian artean. Ezker aldeko langilleria batetik eta eskui aldeko pake zaleok (oro barne) bestetik. Gure Euskalerrri gaixoa ez zuten pakean utzi.

Militar agintariok ez genituen gure alde, baina erlijio etsai ziran matxinada zaleok ez genituen adiskideago Euskal erriaren eskubideen etsai izanik. Onela sortu zen anai-arteoko gudatea. Apaiz gaztek eleiza ta erlijioaren alde joka beharra zuten Euskalerrriaren alde arpegi emanez. Gure Txomin eta Araba'ko Gazteiz inguruko erriketan zeudenak bai Nafarrate, Legutiano, Ubidea, Elosua ardura zutenok ataka txarrean zeuden. Ezkertiar eta matxinada zaleon txarkeri ta antzeko gorrotoak galerazi behar zituen lehenengo, militar agintarien eriotzak gebenduz gero. ¿Nola zuzen joka indarkeriaren aurka?

Txomin beti adoretu "ARABA" izeneko gudari taldean sartu zen bere eliztar paketsuen alde arpegi emanez. Zauritua izan zen besterik ez dut esango xehetasunik aipa gabe.

Sendatze arren Orduña'ko gaxotegira eraman zutela jakin araziko dizuet. Andik aurrera gerta zitzaizkionak beste atalerako utzia.

Bat batean oroitu zitzaion Benabar deritzan lurraldean Donibane Garazi inguruan, Santa-grazi "xarmagarrian" apaiz ezagun bat ba zuela eta aruntz joatea erabaki zuen. Apaiz lanetan laguntza ez zitzaion gaizki etorriko. Ez zen gezurra apaiz urritasuna an ere zabaldurik bait zegoen. Bizpairu illabetetan an jarraitu zuen baiñan bere apaiz lan asmoa ezion erabat betetzen.

Are gutxiago Garikoitz Mikel donearen oroitzapena berrituz. Ark Arjentinan euskaldunen artean egin lana gogora zitzaion. Tartean Jaka abizenekoak gogoan izanik. Izen horrek piztu zion Arjentinarentz abiatzeko gogo. Buenos Aires'ko gotzai jaunari haruntz joateko baimen eta eskea egin zion. Ezezkua hartu zuan hango eleiz nagusiek España'tik joan nahi zuten apaizai buruz berri txarrak bait zituzten.

Gure Txomin'ek ez zuen etsi orratiok. Arjentina'n ez ba zuten ontzat hartzen Uruguai'ko Montebideon izan lezakean leku.

Ala gertatu zitzaion. Bertako gotzai jaunak oso maitetsu eman zion eta besterik gabe Benaparroko apaiz lagunak utzirik eta naigabez agur egiñez Montebideo'ko bidea hartu zuen sari Bordeletik abiatuzera zijoan itsas ontzian:

"LIPARI" zeritzan eta bertan Amerikaruntz zijoazen euskaldun adiskide berri egin zituen.

Montebideo Uruguai'ko iri nagusian ongi etorri maitekorra egin zioten. D. Txomin'ek ohi zuenez erantzun berdiña egin zien eta esan beharra dago hango herri ta leku askotan, naiz gero Arjentinarentz joan apaiz eta adiskide lana gogo ta bihotzez bete zuala. Arjentinara asmoa zuala jakiña dugu Jakakortaxarenen urratsak jarraiturik. Horretarako Montebideo'ko gotzai jaunak erreztasun guztiak eman zizkion eta azkenik Buenos Aires'ko apezpiku jaunak Mones-Kazon erriko erretore izendatu zuan berrogei ta gehiago urtetan benetan ospetsu, apaiz langille herrigizon maitatu eta Pampa gutzian ezaguna.

Irakurleak epaituko du egi utsa, losintxarrik gabe Arjentina osoak agintari ta menpekoak dakitena.

Apaiz otoitzlari eta gizon bulartsu

Beldur izateko uneak ziran. Amurrio'ko eritegian kokaturik zeuden zenbait fedegabeko ezkertiar okerrak, Txomin apaiz gaztea bereganatu nahi zuten emakumezko galdu baten bidez. Baina Txomin jainkotar eta fededun bere apaiztasun eta fede aginduak oso-osorik atxiki zituen. Alperrikakoak izan zituen ezkertiarren zirikaldiak, naiz bitarteko emakumezko eder bezain lotsagarria jarri. Txomin beti apaiz eta Jainkotiar otoitzlari iñoiz baino sendoago zirauen bere goi asmoetan.

Naiz euskaldunentzat galdua ikusirik ez zuen amorik eman. ARABA ezik Gipuzkoa eta Bizkaia bide berdiñean zijoazen. Orobat BILBO eta an ipiña zeukaten jaurlaritzaz. Arabar lagunei ez zitzaion beste biderik Santanderuntz joatea besterik. Katigu zorrotza galtzalleentzat. Senperrenak jasan zituztela ezin sinetsi alakoak izan ziran; zigorra, iraiña, gosete eta zikiña izan zituzten nagusi. Zenbait egunen buruan, ordea eta Jainkoa'ri esker militar agintariok apaiz ziran aldetik itsas-ontzi zar batean Prantziaruntz aiza zituzte. Ez zen asarre D. Txomin apaiz gaztea. Gutxiago balantzaka Baiona'ko kaiean lurra zapaldu zualarik. Alaitasunez gañezka ea uste gabeen bere burua Euskalerrian arkitu zualarik.

Naiz argal, arlote ta sosik gabe bere burua ikusirik, zerutik laguntza eldu zitzaion. Bayona'ko kalean noruntz jo ez zekiala uste gabeen aspalditik adiskide zuen Jesus Elosegui tolosarrakin topo! Lasatasun ederra! Honen laguntzaz Frantzian bizi ahal izateko paper agiria nola sortu erakutsi zion. Txanpon batzuen jabe egin zen eta garai hartan beharrezko zen baimenak bereganatzea Elosegik Hendaia'ra joan zedin lagundu zion.

Emen asten da Txomin Jakakortexarenaren bizi modu berria ondoren idazten joango naitzizutena.

Bidasoz aruntzko Euskalerrian D. Txomin egonaldia

Sinisgaitza zitzaion Santander'tik bizirik atera ta gero gerta behar zitzaiona. Irakurleoi atsegin izango zaiolakoan kondaira idatzi beharrean gaude.

Aberri maitea

Uts aundia gertako litzaidake onerano iritxi ta gero ez banuke aitakuko D. Txomin'en izena zen izeba amaren aizpa zena alegia, azalduko ez ba'nu. Leiza'n jaioa kristau ta euskeltzale sutsua egiz, hori dela-ta militar agintariok etxe, diru ta ondasuna kendu zizkioten.

Illoba Txomin apaiza Arjentina'n zela jakiñik harekin bizitzera joan zen; eta elkarrekin Mones Kazon'en berrogei urtetatik gora igaro zituzten. Illobak izeba (izeba dei ohi dio izan zuen etxeoandre; sukaldari, eliza garbi zale, aurren irakasle eta eginkizun txarrenak burutuz. Herritarrok maite izaten ikasi zutela gutxi esatea da. Zaartuta ta gero osasunez argaltzen asi zelarik aberri maitera itzultzea erabaki zuen; eta illoba apaizak beste orrenbeste egitera bultza zuen. HERRI guztiak nahigabe sakona nabaitu zuela errez da asmatzen.

Jaka apaiz jaunak adiskide aunitz zituan Argentina osoan bai aliztar laun A. Bonifazio Ataun, Iñaki Aspiazu, Gaztelu, Mallea, Mújika, Irazusta, etc., etc. Buenos Aires'ko "LAURAK BAT" elkartzeko kide ugariak ez aitatzearren. Sendagille, legegizozn, lurjabe, salerosle, Garai-koetxea, abar eta abar I. Lopez Mendizabale'n "Etimologías Vascas" bezelako liburu tantaia ez da aski guztiak apaitzeko. Antziñatik astekari ta "La Vasconia" gaur "Boletín de Estudios Vasco-Americanos" dira siñale; eta areago Arjentina osoan amarkadatik gora sendo zabaldu diran Euskal-Etxe berriak soñu jotzaille eta dantzari txikiak alaituz. Guztietan zen ezagun D. Txomin Jaka. Izeba-biloba garatu zituna Europa'runtz Arjentina'n Pero'nen agintepean sortutako burruka ta matxinada izan ziren. Ezeiza deitu egazkin zelaira agur egitera "Mones Kazon"go herritar osoaz gañera euskaldun adiskide anitz bildu ziren azken muturretik etorriak. Umezurtz antzo geldu zirala esan daiteke, Aberria geldu zitzaiea eamets.

Mones- Kazon

Herrialde hau ez nuen sekulan entzun ez Arjentina'ko beste gehienak bezala naiz lurralde artan nere aiton-amona bizi izan. Nere aita maitea han jaiu aurtxo zala amak besotan ekarri zuten oial aize indarrez orduan. Gure D. Txominek asiera eman zion bere bizi-maña arrigarriari. Abiagaitzen beraz. Hango bizilagun langille eta behartsuek lur lanen nekazaritza, aberetegi (Behi, zaldi, ardi ta abar) zuten biziera. "Estandia" zeritzaian lekuetan arkitzen zuten irabazbidea.

Ez ziran noski aberatsak bainan lan egiñez ez ziran goserik iltzen. Ortik aurrera ez ziran asko arduratzen ez eskola ikaskizunez eta ez erlijio arazoaz. Ikastola xumea eta eleiza ganako joera otsa zuten ezaugarri. Gure apaiz berriak nun arduratu ba zuen. Eta ez alperkeri gizona izan gogoz ekin zion lanari. Batik bat erlijio eta kristau sinismenean naiko epel arkitzen zituen herritarrek aur eta ume ta gazte jendeak ematen zion kezka eta Apaiz berriaren lehenengo eginkizuna bere gain hartzea zen. Eta etengabeko ea 50 urteetan beinere ahantzi ez zuena. Tarte luze hortan zer nolako aldaketa arrigarria egin zuen Mones-Kazon herriak ea miraritzat jarri leike. Herrixka behartsua aberats bihurtu; eta Erlijio ta kristautasun sinismenean ots eta epel zena Elizako bidean ipiñi. Ezkongai zuzen ez ziran senar-emazteak sakramentuz bedeinkatu; eta izan zituen seme-alabak bataiatu.

Herriko aginteriekin ere ondo etortzen zen. Meza, eliskizun eta jaunahartzeak ugaritu zituen.

Guztia esan beharra dago herritar gehienok laguntza eman ziotela. Buenos-Aires eta beste eleizbarrutiko zenbait gotzai jaunek zorionak ematera etorri zitzaizkion.

J. A. Agirre Euskadi'ko Lendakaria Argentina'n

An izan zen gizonik aundiena zintzarriok gabe uztea ez da legezko eta akats hori zuzendu nahi dut. Bainan esanez Buenos Aires'en agintariok barne arrera on eta beroa egin ziotela.

An bizi ziran euskaldunok edo jatorrikoak bederen barren pozaz inguratu zuten. Emen eten zerbait egiñez ezin utzi dezaket gure D. Txomin'ek bururatu zuen lanen artean "Eleder" andre Poesiari opa zizkion bertsaldiak "MARTIN FIERRO"n omenez euskeraz "MATXIN BURDIN" izenez bataiatuz. Haren oroitzaenez egin zen urtebean D. Txomin'ek itzulpena argitara eman zuen. Lenago ere Jose M.^a Salaverria'k "Gautxo ejemplar" liburua argitaratua zuen; eta Migel Unamuno neurri eziñak oso gogoko izan zuen eta zeukan azturik. Egi guztia esatenko ni ez naiz ausartzen D. Txomin'en euskal itzulpena egokia den ala ez; Gautxozen izkera, neurri ta doñuak ez berdiñak bait dira eta asmo utsa izan zualarik goresmena ondo irabazia du. Oker eta oro har Gautxo zintzo baten goresmena da, argendinarrok esker dutena.

Erlezaintza

MATXIN BURDIN'en bertsaldi poema erle mokofiñak baztertu ba dute D. Txomin'ek Erlezaintzan egin zuen lana ordaintzea ez dezake iñork uka. Mones Kazon'en bizi zelarik ango biztanlei erakutsi zien erleen bitartez atera leiken aberastasuna eta zaintza ortan darraite herri osoaren onean. Panpa inguru aietan zabaltzen joango da nekazari eta langille jendeen artean. D. Txomin'ek bere sakelez liburu mardul eta onuz betea, gazte askorentzat etorkizuna eta Jainkoak sortutako erleak eta langille jendea oparoago bizi dadin eta urritasun eta gosea kentzeko ondasun iturria. Eta guztia D. Txomin'en sakeletik eta berak Kristo'ren ebanjelian ondo ikasi zuen duarik zabaldu duena. ¿Ez hal da hau apaiz batentzat erakutsirik zuzenena? Nik ala uste, ene motzean. Alabitz!

Moro Kattua

Iñor gutxik itxoitzen zioten Txomin eta aingeru-zaindari izan zuen Izebari euskal lurrera irixi ziranean. Osta-osta zekiten berria guda aurretik Jaka'ren idaz lanak irakurriak zituztenak.

¿Nola ez aipa "Moro Katua" bertsoaldia? Berriz emen aldatzea merezi du:

"katu zar bat ba dugu
Moro du izena,
Burutik oiñetara
beltx-beltza dena;
Baiñan beltxagoa du
Ark bere barrena
Odol orde z du noski
zauñetan edena..."

Benetan D. Txomin bertsolari dugu eta ene iritzian obeto ta errezagotz idazten du hitzneur-tuz hitz lauz baiño.

Ikastoletako umeok buruz ikasi zituzten. Ez da arritzekoa D. Txominek etxetik at egindako txangoa Hernani'ko "Urumea" azaltzea izan zela adiskide aundi bezain italgarriz zuen lagun-tzaz egitea. Gazteiz'en izan zituen apaiz lagunak agurtzera urrengo. Pozbide atsegingarri gerta

zitzaizkion ibilaldi aiek. Ba zuen beharra, ezen “basakatu” okerragoz beterik arkitu zuen jaioterria. Gaztedia giro ta ohiturak oker aldatuz ez ziran bere aurtzaro denborakoak. Ez zen errez ikaratzten den hoietakoa. Eragozpenak garaitzeko lan egiteko gertu zegon hoietakoa baizik. Berastegi'ko neska mutillei doñu, txistu ta euskal dantzak eta eskola erakusten leia zen.

Maisuari eskerrak “Sanlontxo” herriko zaindaria ren egunean aspaldi ea galdurik euskal jai alai eta atsegiña ospatu zen. D. Txomin'en lanerako griña ez zen amaitu. Ez erlijio gaietan eta ez euskaltasun alorrean.

Ez zuen alperrik har goiburutzat “BIZITZAN BI GOI ASMO”. Nekearen nekez (Erleitzaintzatik ate zuen beste xederi). Nere maxiaketa aspergarri izan ez zaitzaten urrengo orrialdean J.L. emango diot bukaera.

Azken hitzak

Euskaldun izena hain gora jaso duen D. Txomin Kortaxarena apais jaun, herri gizon langille ahaztu eziñak azken opari hitzak merezi ditu: “Bizitzan bi goiasmo” liburuaren egille izateak merezi du. Ni baino kontatzaile trebeagoa horretarako eskatzen zuela ba-dakit. Mones Kazon'go bizi lagunok hala uste izan dute eta Berastegui'ra eskerrak ematera etorriak dituzu Nik nere lan kaskarra amaitzeko eta D. Txomin'ek benetan maite dituen erleak lore-usaidunen orde eta ordaiñez. D. Txomin bertsolariak sortutako puskarik egokienetako bat aldatuko dizuet:

Holena dio”

“Eusko gazte atzar adi
Abestu ezak ¡Gora Euzkadi!
Ez utzi hiltzen herri euskera.
apain dago gaur ikurriña
lau aizetara eragiña,
Hainbat seme odolez
gorritua iñolaz.
¡Gora gure aberri maitea
¡Gora antziñako legea,
¡Gora ¡Gora gure aberri maitea!

Antonio María Labayen